

EUSKAL ADITZ SINTETIKOEN URRITASUN ETA MODERNOTASUNAZ

- Aditz jokatuena zerrenda (cf. Lafon 1943, Mounole 2006) inoiz ez da luzeegi izan (75 edo). Gelditu zaigun erro soil jokatuena kopurua bi dozenatik hirutik baino gertuago dela ikus liteke Lakarra 2007-n.

- Euskarak historikoki salbuespen urri direnak ditu jokatzen eta “*e-” aurrizkia izan zuten erro soil guztiek forma sintetikoak izan zituztela onartuko bagenu ere (askotxo onartzea dela dirudi) hiru bat dozenatako salbuespena genuke gehienez ere. Ohar bedi ez naizela sartu ere egiten adizki jokatuak izan arren sintetikorik aberatsenek ere ez dituzten denbora, aspektu eta aldi sintetikoaren kontuan.

- Urrutixeko joaz, ordea, dela Ipar-Ameriketara, dela Ginea Berrira edota, batez ere, Australiara, ugari dira aditz jokatuena saila euskararena bezain murriz edota are murrizago duten hizkuntzak.

- Kopuruarekin batera, formari lotzen bagatzaizkio orain, aski nabarmena begitartzen zaigu adizki sintetikoak jokatu gabeen gainean eratuak direla eta, beraz, haien ondoko (vs. Scuchardt):

- (1) Bokala harmonia eta erreduplikazioa izan, adjektibo eta aditz jokatu gabeetan ematen da, baina ez aditz jokatuetan.
- (2) [____] → [´____] gertatzen da azentuan eta, ondorioz, [h__h__h__**h] → [h__h__**h] hasperenan. “*ethor-”, “ekhar-”... baina “dator”, “dakar”...
- (3) Zenbait ezaugarri edo aldaketa berezi lehenik erroetan eta gero handik forma sintetikoetan jaso dira, hala nola: metatesia “*janon” > “*johan”, eta hortik “doha” (ez “**dao”).
- (4) “da-” aditz lokatibo gisa eta hortik > `inperfektibo´, `bukatu gabe´: “jausi”, “jakin”...
- (5) “d-” > “l-”, gehi “-l-” > “-r-” eta, beraz, “*e-da-duz-i” > “jauzi”, baina “*da-la-non” > “daroa” / “darama”, eta ez “**dahao” / “**daho”.
- (6) “-ki” / “-tsi” partizipio marken garapena ere forma jokatuena orokortasun eta zahartasunaren aurka doa (Lakarra 2006):
 - (a) “-gi” aurrizki batetik dator, eta, gainera, forma jokaturik gabeko aditzetan izateaz landa, askozaz zabal eta orokorrago da forma jokatu gabeetan hauetan baino.
 - (b) “-tsi” adjektiboak egiteko “-tz” marka zaharrak leherkari aurrean pairatu aldaketa baten morfologizaziora “-i” eranstetik dator; soilik adizki jokatu gabeetan eman zen baina ez besteetan.

- Gómez-ek (1994) Trask (1977) jarraiki laburki aipatu zuen euskal aditzaren garai inpersonala ongi dator hizkuntzaren egitura analitikoagoa eta isolatzaileagoarekin. Ezkerreko pertsona komuntadurak ez ziren hor 'betidanik' eta eskubiko berriagoak askozaz gutxiago, jakina: orain, gainera, modua, aspektua edo denbora markatzeko hizkiak ere ez direla betidaniko baizik eta multzo-aditzen gramatikalizazioaren ondorioz eta ondoren.

- Gertakari ezaguna da sintetikorik ez dela maileguen artean, baina hortik abiatuaz latin-erromantzearen eraginaren bitartez azaltzea aditz sintetikoen galera gehi perifrasien sorrera eta hedadura guztiz zail bide dugu. Ez da ikusten zergatik hondatu behar zuen latin-erromantzearen eraginak euskarazko aditz sintetikoa, batez ere lehenago oso aberats eta sendoa izan balitz.

- Perifrasiak ez zirela lehendabizikoz osatu latinak eta erromantzeak zituenaren arabera argi beharko luke. Dagoeneko Céline Mounole-k erakutsi du perifrasi guztiak ez direla garaikide: nekez izan zitezkeen "etor zedin" eta "etorri zen" edo "etortzen zen". Azkenengoa, aditz izena inesiboan + copula mundu osoan zehar zabalduko perifrasi dugu eta inguruko erdaren laguntza gutxi zuen (ezta beharrik ere) euskarak hori sortzeko.

- Australiako hizkuntzetan aditz jokatuak urriak izateaz landa, ikusi izan da horien erro bisilaboetako zenbait silaba errepikatu egiten direla aditz eta hizkuntza ezberdinetan. Hots, hasiera batean erro monosilabikoak bide ziren izen nahiz aditzetan (hitzak eurak bisilabo zirelarik), gero baldintza fonotaktikoa hitzetik errora igaroaz. Bestelako fenomenoak (asimilazio, erorketak...) gora behera, aditzetan australiar hizkuntzalaritzan hain famatua den 'tamaina aldaketa' horren arrazoi garrantzitsuenetariko bat lehenago aditz laguntzaile batzuk konjugazio marka bilakatzea izan zen.

- Badirudi pama-nyunga hizkuntzetan ere aditz bisilaboetako silaba bat askea zela, laguntzaileari baitzegokion.

- Beste hizkuntza batzuetan multzo-aditzak izan litezke aditzak 'loditzeko' joera, gero MA horiek ezabatzen direlarik, dela lexikora igaro diren multzo-aditz simetrikoen, dela gramatikalizazioa pairatu ohi duten asimetrikoen bitartez.

- Bada antzekorik (nahiz eta AS-ko atzizkiekin) tani hizkuntzetan ere, monosilabismotik bisilabismorako deribaren barnean.

- Erakutsi gogo dut badela arrazoirik pentsatzeko AE-k, geroago euskarak ez bezala, MA egiturak izan zituela, batez ere asimetrikoak, eta hor dutela beren jatorria hainbat gramatikalizaziok.

- Orain lehen baino datu eta frogia gehiago ditugu aditz sintetikoen eta perifrastikoen antzinatasunaren dena ezagunean iritzi sendoagoak eta hipotesi oinarrituagoak plazaratzeko.

- Batetik, forma aldaketen ekonomia: ez al da errazago pentsatzea aditz jokatuabeak jasan zituela hainbat aldaketa ("*e-ra-lun" > "*erarun" > "*edurun" > "*edurin" > "iduri"; "*e-da-non" > "*janon" > "*jahon" > "johan"...) eta behin horiek pairatu ondoren sortu zirela "doha", "zihoan" eta bestelakoak, eta ez alderantziz?

- Bada ustekizun bat ezabatzea komeni dena: azken bost mendeetan 60 bat aditz jokatu izatetik dozena edo dozena t´erdira igaroak ez dakar bost mende atzerago jo eta eboluzio eta proportzio berberak izan behar zutela aldarrikatzerik, nahita nahiez, ezta noizbait aditz guztiak edo gehienak jokatu egiten zirela.

- Nik, halere, sintetikoa azterketan bertan sakondu nahi dut. Ezin onar liteke AE-k inoiz 240 bat aditz sintetiko baino gehiago izan zuenik; are gehiago, ezta horiek ere, frango “*e-Ø-” / “*e-da-” / “-ra-” aurrizkien gonbinaketatik baitator: “e-bil-i” / “e-ra-bil-i”, “*e-gon” / “*e-da-gon”... Eta beste asko are atzizki berriagoen bitartez sortuak: “*edun” / “*edun-ts-i”, “*e-ban-i” / “*e-ban-ts-i”...

- Egia esan, erro soil jokatuena zerrenda hurbilago da bi dozenetarik berrehunetarik baino. Kontua da, bada, guk antzeman genezakeen neurrian, euskarak aditz-sail (aditz jokatuena saila) mugatua izan duela hizkuntza erromanikoen, germanikoen eta beste dutenaren kontrara, baina yurokaren eta Ipar Ameriketako eta, batez ere, Australia eta Ginea Berriko askoren edo gehienentzera.

- Marka dezadan latin-erromantzeetatiko mailegaketan izan dugula beti, bestetara jo gabe, garai zaharragoetako sintetikoen urritasunaren froga, ez alderantziz. Zerk azal lezake handik hartutakoen artean segurtasun osoz sintetiko bakar bat ere ez izatea? Ez ote eredu horren falta edo eskasiak egin zuela guztiak partizipio bezala hartzea?

- Noa pixkat atzera. Ikusi dugu Trask-ek “da-” aurrizkia ezagutu zuela aditz jokatuena adizkietan eta aspektu markatzat azaldu ere. Horrezaz landa, “da-” hori lehenago aurrizki nahiz laguntzaile ere izan zitekeela zioen, baina bigarren aukera hori ez zuela garatuko. Batera zein bestera “da-” horrek lehenago aditz oso edo nagusi behar zuen eta, hortaz, “daC” behar zuen izan aditz erroen forma kanonikora iristeko.

- Bada, goian aipatu ditugun aditz australiarrak miatzen direnean, Merlan-ek (1979) dioskunez, bisilaboen zatiren bat (lehen a eta bigarrena) hizkuntza bereko aditz gehiagotan eta are beste hizkuntza batzuetan ere errepikatzen omen dira, morfema aske zein lotu gisa.

- Hots, oraingo erro bisilabiko horiek lehen monosilabo konbinaketak ziren, dela [Nag + Lag], dela [Lag + Nag] aditz multzoena. Gramatikalizazioaren aztertzaileek dioskutenez, “lie” `etzan´, “stand” `egon´ eta, batez ere, “sit” `jarri´ dira mundu mailan era honetako perifrasiak egiteko erabilienak.

- Euskaraz, -C betetzeko aditzaren forma kanonikoak bost aukera baino uzten ez dizkigunez (“*e-dal”, “*e-dan”, “*e-daR”, “*e-dats”, “*e-datz”) zein izango ote lehendabizi multzo-aditz asimetrico bateko elementu bigarrenkari menpeko bilakatua, gero perifrasiako laguntzaile gisa eta azkenik aditzaren aurrizki moduan gramatikalizatua? Galdera erantzuteko lagungarri ezagun zela “*dar” – “adar” – “larr(i)” – “jarri” hitz-familia, “*dats” – “adats” – “lats” – “jaitsi”-ren antzera ere.

Aditz jokatu-gabeak eta perifrasiak: egitura eta historia

- Zein da zaharrago?

Aditz perifrasiak trinkoen menpe daude. Beraz, pentsatzekoa da trinkoak zaharragoak direla. Oihenart trinkoen jatorriaren kontra ageri da. Larramendiren iritziz perifrasiak dira zaharrenak. Lafonen ustez trinkoak zaharragoak dira eta perifrasiak latinaren eraginez sartu dira.

Aditzen aspektu, modua... perifrasiaren bitartez eraikiak dira. Trask-ek, berriz, “e-tor”, “da-tor”... aspektu markatzaletzat jotzen ditu. Lakarrak (2013) dio euskara adizki jokatu gutxiak hizkuntza dela.

Zahartasuna honen eztabaidan, bi hipotesi daude:

1. Euskara trinko askoko hizkuntza zen. Gaur egun 12 adizki trinko ditu, XVI. mendean 60 zituen. Honen arabera, duela mila urte 120 zituen... Gaztelaniak, adibidez, trinko asko; guztiak trinkotu daitezke.
2. Euskara trinko gutxiak, eta aditz perifrastikodun hizkuntza zen (hizkuntza iraniarrak bezala). Aditz bat mailegatzean, partizipioak mailegatzeko ditu, ez infinitiboak. Honela, ez ditu maileguak trinkotzen. Esan beharra da perifrastikoak trinkoen gainean sortuak direla.

- Aditz perifrastikoak:

1. Aditz oina + *edin / *ezan:

Perifrasi zaharrenentzat jotzen dira. Gainera, perifrasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak. Adibidez, “etor nendin”, XVI. mendean aoristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen, baina gaur egun, “etorri nintzen” esanahia hartu du.

2. Partizipioa + izan / *edun:

Honen sorrerak besteari lekua kendu dio. Aditzei dagokienez, adierazten duten aspektu, moduaren... arabera bi taldetan banatzen dira: a) Aditz atelikoak: Bukatzen ez den ekintza bat adierazten du, hala nola “ikusi”. b) Aditz telikoak: Adierazten duten ekintza muga bat da, adibidez “etorri”.

“Aprobaturiko dut” bezalako adizki perifrastikoak maileguak dira eta latinezko perifrasi jakin batetik hartutako egitura dute. Emaizta bat adierazten duen perifrasi bada, jatorrizko balioa “erresultatiboa” da. Gaur egun euskarazko erresultatibo ohikoak “etorria da” bezalakoak dira.

3. Partizipio + joan / *eroan:

Euskal Herri osoan aurkitzen dira, eta horregatik (argudio dialektala) perifrasi zahartzat jo. Joan / eraman aspektua adierazteko erabiltzen dira, ohikoa den bezala beste hizkuntzetan.

4. Aditz izena + izan / *edun:

“egiten naiz”, “egiten dut”-etik dator. Aditz izena + inesioa + aditz kopulatiboa. Inesibozkoek aditz iragangaitza eskatzen dute munduko hizkuntzetan, eta horregatik pentsatzen da horrela gertatu dela euskaraz.

5. Partizipioa + -ko / -en:

Partizipio genitibodunak dira, gaztelaniazko “he de venir” bezalakoak.

6. Ari izan:

“egiten ari naiz” / “egiten ari dut” bezalakoak sartzen ari dira gaur egun. Aditz nagusiak erabakitzen du zein hartu.

- Aditz trinkoak (barne-morfologia):

Erdi Aroko datuak garrantzitsuak dira euskararen historia jakiteko. Euskarazko lehenengo esaldi dokumentatuetan ikus dezakegu aditz trinkoak ageri direla: “...dugu” (Donemiliaga, X-XI), “...Garidario” (goitizena da, baina adizki trinkoa da, 1366, Nafarroa), “...Badarraigu” (1366, Nafarroa), “Yladaçancelaya” (1460, Aramaio)...

- Adizki trinkoak nola berreraiki:

XIX. mendean geroztik eztabaida 3. pertsonako morfemen inguruan. Forma asko bereizten dira denboraren arabera, polimorfismoa: d(a)-, z-, b-, l-.

Trask-en proposamena: Hauek ez dira pertsona markak, 3. pertsonan daukagun marka bakarra Ø da. d-, z-, b- eta l- aspektuarekin erlazionatzen ditu. Baieztapen hau SVoren aztarnatzen edo argudiotzat hartzen du. Adizki trinkoen berreraiketa 3. pertsonatik bideratzen du: “da-tor”, “e-tor”. da- eta e- aspektua direla dio. Beraz:

*na-dator > nator, *ha-dator > hator → * Ø-dator > dator.

Hau da, 3. pertsona jatorrizko formatzat hartzen du, gainontzeko pertsonentzako ere. Izenordainak, horri loturik, paradigma osoa sortzen da.

Stassen-ek “X-kin Y” bezalako egiturekin lotzen du Trask-en proposamena, aditz inpersonalen erabilerarekin.

Schucardt-ek “-o” eta “-e” erakusleekin lotzen ditu. Datiboaren markaren jatorria “eman” aditzean bilatzen da, eta “eman” berreraikitzeke, bere “emon” aldaera aztertu behar da.